

**PROCESO DE PARTICIPACIÓN PARA LA
ELABORACIÓN DEL PLAN DE LA DIRECCIÓN
GENERAL DE CULTURA-INSTITUCIÓN
PRÍNCIPE DE VIANA.**

**VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEKO KULTURA
ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EGITASMOA
BURUTZEKO PARTE HARTZE PROZESUA**

**REUNIÓN TERRITORIALES
ÁREA DE TUDELA**

**LURRALDEKAKO BILERAK
TUTERALDEA**

TUDELA, 19 de septiembre de 2016

TUTERAN, 2016ko irailaren 19an

AURKIBIDEA

1.-SARRERA.....	1
2.-HELBURUAK ETA TAILERRAREN METODOLOGIA OROKORRA.....	2
3.-PARTE-HARTZAILEAK	3
4.-BILERAREN GARAPENA	4
5.-LABURBILKETA ETA AGURRA	11

1.-SARRERA

Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzeak Hiritar Parte-hartze prozesua garatzen ari da Zuzendaritzaren Egitasmoa burutzeko. Prozesu hau Maiatza eta Ekaina bitartean antolatu ziren gaikako bilera sektorialekin martxan jarri izan zen, hauek Nafarroako panorama kulturaren sektore ezberdinen informazioa eskaintzea eta iritzi ezberdinak jasotzea helburutzat zutelarik.

Behin bilera sektorialekin amaituta, lurraldekako parte-hartze bilerak antolatu egin ziren, Nafarroako zonalde ezberdinetan burutu izan zirelarik eta helburutzat Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoa Nafarroako lurraldean zehar ezagutaraztea eta iritzi plural eta ezberdinagoak jasotzea zituztelarik.

Dokumentu-akta honek Tuterako Almirantearen etxean, Castel-Ruiz Erakundearen xedean, 2016ko irailaren 19an garatu zen bileraren inguruko informazioa biltzen du.

Bilera honetan parte hartzeko deialdia irekia izan zen, deialdia batez ere zonaldeko kultura agente ezberdinei zuzendu izan zelarik (koordinatzaileak, ordezkari politikoak, elkarten ordezkariak, enpresak, etab.).

2.-HELBURUAK ETA METODOLOGIA OROKORRA

Tutera lurraldeko bilera 2016ko irailaren 19an garatu zen Almirantearen etxean 17:00 eta 19:30 orduen bitartean.

Bilerara erakunde instituzional, elkarte eta enpresariak ziren 31 pertsona bertaratu ziren, guztiek kultura arloarekin zerikusia zutena.

Tailerraren **helburuak** ondorengoak ziren:

1. Parte-hartze Prozesua aurkeztea lurraldekako fasean.
2. Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoa aurkeztea.
3. Iritziak, ekarpenak, eta. jasotzea, bai zonaldeko kultura beharrei dagokienez, bai Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoarenganako proposamenei dagokienez.

Lurraldeko bilerak ondorengo ordena jarraitu izan zuen:

1. Tuterako Udaletxeko Kultura Zinegotziaren **agurra eta ongietorria**.
2. **Parte-hartze prozesuaren azalpena** oro har eta **zehazki parte-hartze bilerarena** (arauak, bileraren antolaketa, etab.)
3. Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eskutik **Zuzendaritzaren Egitasmoaren aurkezpena**.
4. Talde dinamikaren **parte-hartze lana**.
5. Talde lanaren **bateratzea**.
6. Amaiera eta agurra.

3.-PARTE-HARTZAILEAK

PARTE-HARTZAILEAK	
Izen deiturak	Erakundea
ENEKO LARRARTE HUGUET	AYUNTAMIENTO DE TUDELA
JOSÉ ANTONIO LASHERAS SANZ	AYUNTAMIENTO DE BUÑUEL
AMAIA PEREZ ZARDOYA	APZ. RESTAURACIÓN Y TASACIÓN DE OBRAS DE ARTE
ÓSCAR SOLA TORRES	AGRUPACIÓN DE SERVICIOS CALIBUS
SHEILA MARTÍNEZ GONZÁLEZ	AYUNTAMIENTO DE ABLITAS
JOSÉ ÁNGEL LARREA HERNÁNDEZ	AYUNTAMIENTO DE CASTEJÓN
JOSÉ LUIS BEAMONTE	AUROROS DE TUDELA
ISABEL ITURRE ARAU	AUROROS DE TUDELA
JESÚS MARÍA ITURRE	AUROROS DE TUDELA
MARÍA JOSÉ ESTEBAN ESTEBAN	GRUPO DE TEATRO ESCOLAR VALLE DEL EBRO
RAQUEL FERNANDEZ RAZQUIN	ASOCIACIÓN DE MÚSICA Y CANTO DE LA RIBERA
LUIS DURÁN ARREGUI	AMIGOS DE LA CATEDRAL DE TUDELA
BRÍGIDA GÓMEZ LIBERAL	AMYC
JULIO MAZARICO	CINECLUB MUSKARIA
MARÍA JOSÉ ALONSO MARTINEZ	AYUNTAMIENTO DE ARGUEDAS
MARI LUZ LABIAGA BAÑOS	AYUNTAMIENTO DE ARGUEDAS
MÓNICA CAMPOS RODRIGUEZ	AYUNTAMIENTO DE CASTEJÓN
TEATRO AS DE TE	TEATRO DE TE
CRISTINA ARELLANO GARCÍA	CONSORCIO EDER
REBECA VALBUENA SOLA	AYUNTAMIENTO DE CABANILLAS
ALICIA RODRIGUEZ ALEGRÍA	AYUNTAMIENTO DE VALTIERRA
ANA ZARDOYA	AYUNTAMIENTO DE RIBAFORADA
NOEMÍ HERNANDEZ	AYUNTAMIENTO DE RIBAFORADA
JOSÉ MANUEL MAGAÑA GÓMARA	CORO FERNANDO REMACHA
MARÍA ÁNGELES BIENES CALO	CORO FERNANDO REMACHA
MARÍA JESÚS ZOCO EZPELETA	
JESÚS MARÍA RAMIREZ	FUNDACIÓN MARÍA FORCADA
JOSEFINA SALCEDO	CORO JOAQUÍN GAZTAMBIDE
IÑAKI ALBERDI	CORO JOAQUÍN GAZTAMBIDE

ANTOLAKUNTZA	
Izen deiturak	Erakundea
JAVIER ESPINOSA OCHOA	EIN Arquitectura e Ingeniería Urbana
ANA SARRADO ARRAGÜES	EIN Arquitectura e Ingeniería Urbana
JOSE ABEL CASADO MARTINEZ	EIN Arquitectura e Ingeniería Urbana

4.-BILERAREN GARAPENA

Javier Gomezek, Tuterako Udaletxeko Kultura Zinegotziak bertaratutakoak agurtzen ditu eta Fernando Perez Gomez, Nafarroako Gobernuako Kultura-Vianako Printzea Zuzendari Nagusia eta Javier Espinosa Ochoa aurkezten ditu, Parte-Hartze Prozesuaren koordinatzailea eta EIN Arkitektura eta Ingenialaritza SLUren, prozesuaren laguntza teknikoa, ordezkaria dena.

Honen ostean Javier Espinosa Ochoak, EIN Arkitektura eta Ingenialaritza SLUren ordezkaria denak bertaratutakoak agurtzen ditu eta prozesuaren aurkezpen orokorra egiten du eta baita parte-hartze dinamikarena ere.

Ondoren Fernando Perez Gomezek, Kultura-Vianako Printzea Zuzendari Nagusiak, Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzearen Egitasmoaren laburbilketa azalpena eskaintzen du.

Honen ostean parte-hartze dinamika azaltzen da eta bertaratutakoak bi taldetan banatzen dira bileraren parte-hartze atalari hasiera emateko.

Azkenik bi taldetan landu izan diren gaien erakusketa egiten da.

Lurraldekako bileran egindako aipamen nagusienak ondorengo orrialdeetan azaltzen dira.

1.- ZURE HERRI/ESKUALDEKO KULTURA BEHAR NAGUSIAK

PLANGINTZA

- Hasiera puntu gisa, Nafarroako Gobernuak Erribera eta Iruñerriaren artean dagoen alde negatiboa kontuan hartu beharko luke, Nafarroako Erriberako biztanleriak, beste nafarreko berdintasun logika batean, kultura baliabide eta zerbitzuenganako eskuragarritasuna murriztua izatea, Nafarroako Erriberak lurraldeko eredu orekatu era berdintasunekoa bultzatzeko duen papera Nafarroan eta Ebroko Bailaran kontuan ez hartzea suposatzen baitu. Horrela, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Erriberako Kultura Egitasmo Estrategikoa igarri beharko zuen bere Egitasmoaren barne, ikusgarritasuna eskainiz Nafarroaren barne eta baita Eskualdeko influentzia eremuan ere – Somontano de Moncayo, Aragoiko Ebroko Erribera eta Cinco Villas, Behe Errioxa eta Agredaseko Eskualdea. Horrez gain, Eskualdeko balore propioak eta kultura errealitate espezifikoak bultzatu beharko ziren, Tuteran eta Nafarroako Erriberan oinarritutako kultura eskaintza sustatzea zerbitzuak eskaintzearen testuinguruan eta koordinazioa eta sare elkarlana erraztea Foru Erkidegoko beste lurraldeekin. Azkenik, sinergiak garatu eta probestea, bai Eskualderako bai Nafarroako lurralderako, lurraldeko proiektio sozial eta ekonomikoa bermatuz, POT-ek onartu egin zutena eta egun arte ondoriorik izan ez duena.
- Kultura Plangintza epe luzeko ikuspuntutik eta ez epe laburretik burutu behar zela azpimarratzen da, perspektiba estrategikoa eta ez programatikoa beharrezkoa izanda
- Erriberako helburu estrategikotzat beharrezkotzat antzematen da Eskualdeko ikus entzunezko sektorearen potentzial estrategikoa, pisuzko giza baliabide eta materialak direla eta, esperientzia, elkarlan egiturak eta azken hamarkadetako garapena direla eta (Opera Prima Jaialdia, Espainiako Zinema Jaialdia, Zuzendariak, Musikaria Klub zinema; eszenatokiak – Bardeak; etab.)
- Kultura Zuzendaritza Nagusiko Egitasmoaren barneko lurraldekako parte-hartzea egitasmoa garatzerakoan izan beharko zela azpimarratzen da, ez onartzeko zain dagoen borradorea jada egina dagoelarik.
- Talde eta elkarteei zuzendutako diru laguntzen planifikazioa epe ertainera antolatua egon beharko zen, horrela laguntzen urteko kudeaketak eragiten dituen estutasunak saihesteko.

BALIABIDE ETA AZPIEGITURAK

- Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoaren barne Erriberako Kultura Egitasmo Estrategikoaren errekonozimendua dela eta, eskualde mailako kultura espazio baten beharra azpimarratzen da, Erribera guztirako eta inguruko influentzia eremurako ere, kultura, sozial eta ekonomikoi bultzatzaile papera beteko zuena.
- Kultura behar eta azpiegituren beharrak identifikatzerako mementoan diru laguntzak edota giza baliabideak eskaintzerakoan, proiektu edota ekintzek duten erreferentzia eremua kontuan hartzea garrantzitsua da; hau da, asetzen dituzten beharrak lokalak diren, eskualdekoak edota lurraldekoak.
- Oro har, aurrekontuetan eskasi nabaria dagoela onartzen da, azken urteetako murrizketekin okerrera egin duena, kultura beharrak asetzeko bai Nafarroako Gobernu mailan bai tokiko administrazio mailan. Honi gehitu behar zaio, parte-hartzaile batzuen aburuz, sentsibiltate politiko falta dela eta, “kulturala baino publikoa denak lehentasuna duela”.

1.- ZURE HERRI/ESKUALDEKO KULTURA BEHAR NAGUSIAK
Herrietan erakusketaldietarako dagoen behar orokortua azpimarratzen da.
Eskualde mailan produkzio eta sormen artistikorako espazio bat izatearen beharra azpimarratzen da.
Interes historiko eta artistikoa duen ondare materialaz gain beste ondare materialak ere kontuan izatea (argazkilaritza, ikus-entzunezkoak, etab.) eta immateriala den ondarea bereziki (musika, dantza, ohitura jakituriak, eskulangintza, etab.).
Eskualde eta mundu mailako ondareari garrantzia eskaintzea, ez soilik herri ondareari.
Zehazki Arguedaseko kasua azaltzen da, non arte eszenikoekin (zinema, antzerkia, etab.) zerikusia duten kultura ekintzak garatzeko espazio eskasia nabaria den, egun dagoen espazioa (La Capilla) oso mugatua baitago.
Kultura talde ezberdinek euren zereginak garatu ditzaten beharrezkoak diren espazio egokien eskasia nabaria da herri guztietan.
Zehazki Tuterako kasuan, liburutegi baten beharra azpimarratzen da, edota egun eraikia dagoenaren modernizazioa bere azpiegitura eta ekipamendu materiala eguneratuz, baita bere funtzioak ere. Honekin lotuta, Tuterak eskualde edota lurraldeko erakusketetarako espazio baten duen beharra azaltzen da
Tuterako kasuan baita ere, Kultur etxea eta erabilera anitzeko kontzertu aretoa beharrezkoak direla azpimarratzen da.
Castejoneko kasuan Castejoneko Museoaren erregularizatze beharra aipatzen da Nafarroako museoaren sarearen barne egon dadin.
Kultura talde jakin batzuen ondorengotza arazoa aipatzen da (adib.: Tuterako Aurorok).
Oro har, kultura ekintzak garatu ahal izateko giza baliabide eta baliabide ekonomikoaren eskasiaren inguruan adospena dago.
Oro har, espezializatua dagoen langile tekniko kualifikatuen falta nabari da, adibidez ekitaldietarako aretoak prestatzerako mementoan (argia, soinua, etab.).
Azpiegituren gaia dela eta desoreka nabaria susmatzen da, herri batzuek behar bezalako azpiegiturak dituztelarik, beste batzuek ezer gutxi izanda.
Baliabide ekonomikoak ez daude batere orekatuak. Lurraldeko proiektu jakin batzuek Kultura aurrekontuen zati handiena hartzen dute. Nafarroako biztanleriaren laurdena Erriberan bizi dela kontuan hartuta, aurrekontuen banaketa ekitatiboagoa izan beharko zen.
Zonaldeko Udaletxe askok mugikorrentzako aplikazio propioak dituztela aipatzen da. Egokia litzateke Nafarroako Gobernuak Udaletxe guztiek komunean erabili zezaketen aplikazio bat sortzea.
Ondarea dela eta, azpiegitura edota entitate jakin bat izan beharko zen Erriberako ondarea kudeatu eta defendatzeko.
Ondare erlijioso eta zibila era negargarrian dago Erriberan. Udaletxe ezberdinak ez dira herriek dituzten ondare artistiko eta historiko garrantzitsuak mantendu, eraberritu eta erabiltzeko kapazak.
Tuterako Katedrala eraberritu egin zenean bertako dokumentu asko Iruñera bidali izan zirela eta bertan ikertu gabe daudela aipatzen da. Diozesi Artxibategia Iruñera mugitu izana kritikatzeko da.

1.- ZURE HERRI/ESKUALDEKO KULTURA BEHAR NAGUSIAK
Erriberan horrelako ekintzen inguruko galderak sortzen dira. Dokumentuak Erriberan izan behar dira eta bertan ikertu.
▪ Kultura helburuak dituen eskualde garraio sarea sortu beharko zen.
HERRIEN ARTEKO KULTURA KOORDINAZIOA
▪ Kultura ekintzak programatzeko, hedatzeko eta burutzeko mementoan eskualdeko herrien arteko koordinazio handiagoa beharrezkoa da. ▪ Herrien baliabideak probesteko egitasmo bat beharrezkoa zen, indibiduala baino eskualde ikuspuntua izan beharko zuena. ▪ Erriberan ekitaldien eskaintza zabala dago, baina era berean hauen inguruko ezezagutza handia nabari da, batez ere herrietako biztanleriaren partetik. ▪ Kultura talde ezberdinen arteko koordinazioa ez da existitzen, bai herri mailan bai eskualde mailan. ▪ Kultura sormen prozesuan parte hartzen duten Nafarroako Erkidego Foraleko Kultura talde eta elkarteek arteko koordinazio oso eskasa da, erakunde publikoekin antzeko egoera ematen delarik; koordinazio horretarako ekintza, promozioa eta kudeaketa beharrezkoak izanda, batez ere Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eskutik.
PUBLIKOA
▪ Oro har jendearen parte hartzea kultura ekintzekiko ez da nahikoa, planifikatzerako orduan motibazio falta sortzen duena. ▪ Gizarteak ikusle gisa duen formakuntzaren eskasia azpimarratzen da, honen helburua kultura eskaintzarekiko publiko egonkor bat dena, eskualde mailan bultzatu beharko zen formakuntza izanda.
KULTURA ETA FORMAKUNTZA
▪ Kultura eta hezkuntza lotzearen ideiarekin adostasun orokorra dago, hezkuntzako lehen etapetan lantzen hasi beharko zelarik hezkuntza sistema osoan zehar. ▪ Kulturarako eskuragarritasunerako oztipoak gaintitu behar dira, bereziki hezkuntza arlokoak, etorkizunean kultura ikusle/kontsumidore (eskaria) eta kultura produktoreak/sortzaileak (eskaintza) izatea ahalbidetuko duena. Honekin lotuta familien "kulturizatzearen" beharra azpimarratzen da, bai epe laburrean bai epe luzean, jendeak "kultura ekintza" bere osotasunean baloratu ahal izateko. ▪ Kultura formakuntzak bai ikasketa ofizialak (kontserbatorioa, dantza eskola), bai ofizialak ez diren ikasketak (hitzaldiak, zikloak, konferentziak, etab.) lagundu eta bultzatu beharko zituen. ▪ Hezkuntza Sailarekiko koordinazioa erabat beharrezkotzat hartzen da hezkuntza zentroek kultura formakuntza garatu dezaten haurrengan, gazteengan eta familiengan.

1.- ZURE HERRI/ESKUALDEKO KULTURA BEHAR NAGUSIAK
HEDAPENA ETA INFORMAZIOA
Beharrezkoa da Gobernuaren eskutik komunikazio eta zabaltze Egitasmoa burutzea, jendearengana helaraztea garrantzitsua delarik.
"Eskualde mailako kultura agenda" baten gabezia nabari da, Eskualdeko kultura eskaintza bilduko zuena, nahiz eta Castel Ruizeko Kultura Zentroa honen inguruan jada lanean ari de.
MECNA Proiektuak izan duen informazio era hedapen eskasia azpimarratzen da.
Ekintza nabariak igartzeko beharra dago (adib.: Tuterako Angel Martinez Dantza Eskola), batez ere herri eremuaren eta Nafarroako Gobernuaren eskutik euren lana herri amilatik haratago heldu dadin.
Nafarroako Erkidego Foralean Nafarroako Erriberako kultura ikusgarria izateko komunikazio gehiago eta hobeagoaren beharra azpimarratzen da.
ELKARTEAK ETA TALDEAK
Hezkuntza zentroetako antzerki taldeak direla eta problematika handia dago; izan ere, euren beharrak (adib.: lokalak) ez Hezkuntza Sailak ez Kultura Sailak ez dituzte konpontzen, biek honen inguruan duten erantzukizuna ukatzen baitute.
Arte Eszenikoen inguruan lantzen duten talde, eskola, etab.-ek laguntza instituzional eskasa dute Musikarekin gertatzen ez dena, hauen eskola ofizialak herri askotan aurkitzen direlarik.
Oro har, kultura taldeek eta baira elkarteek ere arazoak izan ohi dituzte diru laguntzen eskaerak prestatzerakoan, tramite administratibo eta burokratikoak kudeatzea ez baita batere erraza.

2.- ZUZENDARTIZA NAGUSIAK BHEAR HORIEN AURREAN BURUTU BEHARREK EKINTZA/PROPOSAMENAK

PLANGINTZA

- Nafarroako Erriberarenganako diskriminazio positiboa bultzatzea Erribera eta Iruñearen arteko ezberdintasuna murrizteko kultura eta baliabideei dagokienez.
- Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusiko Egitasmoaren barne Nafarroako Erriberarako Kultura Estrategia Egitasmoa txertatzea, eskualdeko eta epe luzerako ikuspuntua izango duena, elementu berritzaileetan oinarritua eta beharrezko baliabide ekonomikoak izango dituenak.
- Tuteran eta Eskualdean Nafarroako ikus entzunezko sektorea garatzeko Egitasmo baten planteamendua eta honen burutzea; giza baliabide, baliabide materialak, esperientzia, elkarlan sarea eta azken hamarkadetako garapena probestu eta bultzatuko zuena.

BALIABIDE ETA AZPIEGITURAK

- Herrietan dauden espazioen inbentario bat egitea, defizitak antzematea eta espazioak handitzea eta baita berriak eraikitzea ere.
- Eskualde mailan Produkzio eta Sormen Artistikorako Espazio bat diseinatzea eta eraikitzea/egokitzea
- Arguedasen arte eszenikoekin erlazioa duten ekitaldiak aurkeztu ahal izateko espazio baten eraikuntza.
- Tuteran Liburutegi berri bat eraikitzea edota jada eraikia dena handitzea, bere azpiegitura eta ekipamendua berrituz, baita bere funtzioak ere.
- Kultur etxea eta Aniztasun Ugariko Kontzertu Aretoaren eraikuntza.
- Castejoneko Museoa Nafarroako Museo Sarean txertatzea.
- Nafarroako Erriberako ondarean eta kultura espazioetan inbertsioak egin ahal izateko aurrekontuen zati bat bideratzea.

FORMAKUNTZA, HEDAPENA ETA INFORMAZIOA

- Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eta Hezkuntza Sailaren arteko koordinaziorako Egitasmo baten sorrera kultura formakuntza hezkuntza zentroetara helarazteko.
- Nafarroako kultura informazioa jasotzen duen kultura agenda. Eskuragarritasun erreza izango duena eta eguneratua beti ere.
- Nafarroako Erriberako Kultura Agendaren burutzea.
- Ondarearen ezagutza dela eta, herriek bere burutu beharko zituzten Ondarea hedatzeko eta baloratzeko ekintzak.
- Tuterako turismo bulegoa Tuterako Udaletxeak kudeatu behar du.

2.- ZUZENDARTIZA NAGUSIAK BHEAR HORIEN AURREAN BURUTU BEHARREKIN EKINTZA/PROPOSAMENAK
▪ Erkidego Foraleko Kultura Elkarte eta Taldeen zerrenda eguneratua beharrezkoa da, non gutxienez, lantzen dituzten gaiak, kontaktuan jartzeko helbidea eta baita kokalekua ere. ▪ Parte-hartze Foruen deialdiak egiten jarraitu beharra dago, herritar, teknikari eta sektoreko profesionalak kontuan hartuz.
PUBLIKOA
▪ Publikoa eratzeko programak txikitatik bultzatu beharko ziren. Horretarako Hezkuntza eta Kultura sailen artean koordinazio handiagoa beharrezkoa litzateke. ▪ Kultura programazioetan lan bizitza eta familia bizitzaren arteko oreka txertatzea. ▪ Teknologia berrien inguruko formakuntza bultzatu beharko zen adin nagusiko jendearentzat zuzendua.
LURRALDEKOTASUNA ETA KOORDINAZIOA
▪ Kultura Sailaren presentzia handiagoa Erriberan, hala nola programa jakin batzuei aurre egiteko laguntza teknikoak. ▪ Nafarroako "Tokiko Mapa" eratzea maila kulturalean. ▪ Nafarroako Gobernuak epe luzerako Egitasmoa burutu behar du eta honetan oinarritua diru laguntzak eskaintzea. ▪ Eskualde mailan Kultura Mankomunitate Estrategikoa sortu zitekeen, honen barne elkarteak egon zitezkeelarik. ▪ Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusiko Egitasmoaren bilera deliberatiboetako bat Tuteran antolatzea.

5.-LABURBILKETA ETA AGURRA

Behin lan dinamika amaituta Parte-hartze teknikariak bileran parte-hartu duten pertsonen eskerrak ematen dizkie eta hurrengo parte-hartze tailerretan parte-hartzera gonbidatzen ditu, baita Nafarroako Gobernuak Gobernu Irekiko web orrialdea eta participacioncultura@navarra.es mailaren bitartez ere.

Parte-hartzaileei ebaluazio galdetegia betetzeko eskatu ostean, dokumentuaren berradunaren osaketaz informatzen zaie hau irakurtzeko inork bertan zuzenketarik egin nahi izango balu.